

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko behar ditugun baliabide nagusiak lau taldeetan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

BALIABIDE FISIKOAK

- Bulego bat, Donostian, 90 metro karratu dituen.
- 300 metro karratuko biltegia, hiriaren kanpoaldean kokatuta.
- Bi furgoneta banaketak egiteko.
- Ordenagailuak; sare sozialak eguneratzeko, web orrialdea kontrolatzeko eta bezeroekin gmail bidez kontaktuan egiteko. Baita, korrika egiteko makina instalatu baino lehen diseinua egiteko programarentzako.
- Bulegoko, mahaia, aulkiak eta armairuak.
- Instalazioa egin ahal izateko lanabesak eta materialak.



BALIABIDE INTELEKTUALAK

- Ezagutzak aroztegi, igeltseritza arloan,... gure langileak izango dute. Muntaketaz arduratuko direnak dira.
- Erosle berriak lortzeko marketing ezagutzak, baita mantentzeko ere.
- Gure produktua munduari jakinaraziko dieten gimnasioak eta kirol dendak.
- Teknologia eta ordenagailuen arloko ezagutzak izango ditugu, Iratiri esker.
- Vanessaren hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasuna.
- Zenbakiekin lan egiteko Txominen abilezia.
- Nahiaren antolakuntza erraztasuna.
- Gure produktua bultzatzen lagundu diguten elite-kirolariak.

GIZA-BALIABIDEAK

- **TXOMIN:** finantza kontuaz arduratuko da, haren matematika ezagupenei esker. Arrazoi horrengatik, enpresak lortzen dituen diru kantitateak kudeatuko ditu, baita bezeroei era seguruan kobratzeaz arduratuko da. Gainera, ikasten jarraitzeko asmoa duenez, gure irabaziak handitzeko ideia berriak asmatzen saiatuko da.

- **NAHIA:** Abilezi handia dauka arazoei konponbide bat atera ahal izateko eta erabaki zehatz eta aproposenak hartzeko. Hori dela eta, liderraren papera izango du hasten ari garen enpresa honetan. Jarduera guztiei, bai ekonomikoei, bai sozialei buruzko informazio guztia jakin egingo du eta haren onespenerik gabe ez da proiekturik aurrera aterako, dena kontrolpean izan ahal izateko.
- **VANESSA:** Pertsonekin tratu ona izateko joera dauka, horregatik bezeroen telefono deiei erantzuna emango die eta bulegoan bezeroei fisikoki tratatzeaz ere arduratuko da. Bestalde, bezeroen korreoen kudeaketa ere berak eramango du.
- **IRATI:** Diseinuaz arduratuko da, bai lokalarena bai publizitate kontuena. Bere teknologia berrien ezagutzei esker, enpresaren webgunea sortzeaz eta berritzeaz arduratuko da. Gure sare sozialak (Twitter, Facebook eta Instagram) astero kontrolatuko ditu. Gainera, bezero berriak lortzeko jarduerak sortuko ditu, festen, eskeintza eta abarren bitartez.

FINANTZA-BALIABIDEAK

- Gure enpresa aurrera atera ahal izateko. Txominek, bulegoaren (100.000 eurotan baloratuta) ekarpena egindu du eta Vanessak furgoneta bat (15.000 euro). Aldiz, Nahiak eta Iratik, bakoitzak, 17.000 euroko ekarpena egingo dute.
- La Caixak, 100.000 euroko balioarekin egindako mailegua. Laguntza behar izango dugulako negozio hau hasteko. Nahiz eta, hasiera batean enpresa txiki bat izateko ideia daukagun, ez dakigu etorkizunean bezeroen eskaria oso handia izango den ala ez.

